

'72 ordu' liburua plazaratu du Kepa Iribarrek



Getaria, Zestoa

Kultura

Kazetari getariarrak bere lehen liburua argitaratu berri du Erein argitaletxearekin. Tentsiozko eta misteriozko eleberria da '72 ordu', eta datorren irailaren 6an izango den Elkanoren Lehorreratzearen bezperako orduak kontatzen ditu. "Atzera kontaketa baten kronika" dela azaldu du Iribarrek berak.



Kepa Iribar, artxiboko irudian. (Hitza)

2022/05/25

Amaia Urbieta Arruti

Lehen liburua plazaratu berri du Kepa Iribar kazetari getariarrak: *72 ordu*. Misteriozko eta tentsiozko eleberria da, eta Erein argitaletxearen bidez argitaratu du, Uzta Gorria sail beltzean. Donostiako Udal Liburutegian egin du gaur aurkezpen ekitaldia, Inazio Mujika editorearekin batera.

Atzerako kontaketa baten kronika da funtsean eleberria eta, Mujikak azaldu duenez, "ahozkotasunaren eragina" antzeman egiten da Arroabeko bizilagunaren prosan; izan ere, irrati kazetaria da ofizioz getariarra. Liburuaren tituluak dioen moduan, 72 ordu dira kontatzen direnak, eta tentsioa da nagusi istorioaren hasieratik bukaerara. Tentsio hori mantendu ahal izateko mehatxu bat baliatzen du idazleak. Irailaren 6an izango den Elkanoren Lehorreratzearen bezperetan dago kokatuta istorioaren abiapuntua, zehazki, Getariako Udalean. "100 urte dira Getarian lehen lehorreratzea egin zela, eta 500 urte mundubiratik. Horren urteurren biribila izanik, dena da prestakuntza, lana eta festa istorioaren hasieran. Baina, bat-batean, heriotza mehatxu bat jasotzen dute, eta hor guztia hankaz gora jartzen da", azaldu du Iribarrek.

Istoria idazten hasteko pizgarriak Iribarrek eginiko hainbat hausnarketa izan ziren. Juan Sebastian Elkanok egindakoaz inoiz baino gehiago hitz egin da azken urteetan mundu biraren urteurrenaren harira, baina, Iribarren arabera, "pertsonek bezala ez dugu ezagutzen". Historialariek diotenez, 16. mendean ez zegoen ohitura handirik idatzizko dokumentuak gordetzeko, eta getariarrak pentsatu zuen zeinen altxor handia litzatekeen bat-batean agertutako Elkanoren eguneroko bat. Bestetik, aipatu du Elkano ez dela oso pertsonaia ezaguna nazioartean, "historialariek diotenez". "Nik uste euskalduna izan ez balitz eta, adibidez, ingelesa izan balitz, askoz ezagunagoa izango litzatekeela. Honezkerok, Hollywoodek behintzat filmen bat eskainia izango lioke", esan du idazleak. Ideia horiek buruan biraka zerabilzkiela, misteriozko istorio baterako ideia sortu zitzaion.

Getaria, protagonista bat gehiago

"Liburua irakurtzen duenari Getariara joateko gogoia piztuko zaio", esan du aurkezpenean Mujikak. Izan ere, "bertakoek bakarrik ulertzeko moduko" elementu asko agertzen dira, hala nola tokien izenak eta hitz bereziak. "Bere herriaren maitale batek besteoi herria maitatzen irakatsi digu", gaineratu du editoreak.

Iribarrek ere garrantzia eman dio eszenatokiari. "Nire jaioterria da, eta urte sasoi konkretu batean kokatu dut, uda amaieran". Aipatu du "jolas baten modukoa" izan dela, bere herriari beste begi batzuekin begiratzeke. "Ni orain arte ez naiz Kale Nagusiari begira jarri, eta pentsatu hemen non egin daitekeen atentatu bat".

Herriaz gain, herritarrentzat oso berezia den une batek ere pisu handia du liburuan: Elkanoren Lehorreratzeak. Nolabait, etorkizunean kokatu du istorioaren kontaketa, aurtengo irailaren 6an egingo den lehorreratzean gertatzen baita istorioa. Liburuan agertzen diren zenbait kontu ez dira zehatz-mehatz festan izango diren bezalakoak izango, aurretik hainbat aldaketa egin baitituzte Iribarrek liburua idatzia zuenerako. Dena den, lehorreratzearen unean, kontrajarri nahi izan ditu mehatxua ezagutzen duen jende multzo txiki horrek duen tentsioa, festan dauden gainontzeko herritarren artean dagoen giro alaiarekin.

Urola Kostako albisteak euskaraz, libre eta kalitatez jaso nahi dituzu? Horretarako zure babesa ezinbestekoa dugu. **Egin zaitez HITZAkide!** Zure ekarpenari esker, euskaratik eginda dagoen tokiko informazio profesionala garatzen eta indartzen lagunduko duzu.

Egin HITZAkide

Azken 3 egunetako irakurrienak

- 1 Hanburgesa lehiaketa eta dastaketa egingo dituzte zapatuan Azpeitian**

2022/05/25 Azpeitia
- 2 Gorka Zubizarreta: "Taldea uzteko garaia iritsi zaidalako laga dut Anaitasuna"**

2022/05/25 Azkoitia
- 3 Asentzio jaiak ospatuko dituzte Endoian bihartik igandera bitartean**

2022/05/25 Zestoa




HITZA *kide*



Eskaintzak
SANTIMAMINEKO Koba




Hemeroteka
Papereko zenbakiak PDF formatuan



Gure berri
Urola Kostako HITZA,
aurrera egiteko prest

Hara!



Urola kosta

HARA! Inazio Olazabal eta Igone Arruti beizamarrak elkarrizketatu dituzte Euskadi Irratian

2022/04/17

Ihintza Elustondo



Urola kosta

HARA! Migel Angel Uzkudun 'Anbu', ETB1eko 'Sukalerrian' saioan

2022/04/13

Urola Kostako Hitza



Urola kosta

HARA! Iker Ezama elkarrizketatu dute 'Eugeniren txokoa' kanalean

2022/02/17

Ihintza Elustondo



943 89 00 17 / 943 81 38 41

urolakosta@hitza.eus

Araba kalea 25, 20800 - ZARAUTZ

Nor gara



Babesleak:



Cookieak

Pribatutasun politika

